



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Literatura Dramatikoa

USE 2024

www.ehu.eus



Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzeko bi galderetako bati erantzun behar diozu.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jarri behar duzula.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal).

1. ATALA. Obraren iruzkina eta analisisia (4 puntu).

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisia:

a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.

- Antzerki-generoa (0,5 puntu).
- Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
- Pertsonaien ezaugarriak (0,5 puntu).
- Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).

b) Estiloaren eta formaren azterketa.

- Antzerki-testuaren formaren berezitasunak (1 puntu).
- Antzerki-testu idatziaren ezaugarri zehatzak (oharpenak eta dialogoak) (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarrii buruzko ezagutzak.

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko bat sortzea eta argudiatzea (3 puntu).

Argudio- eta planifikazio-testu bat idatzi behar da lehenik, eta alderdi hauek landu behar ditu, orrialde bateko tartean:

- Testuaren ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak garatu. (1 puntu)
- Proposatutako ariketarekiko egokitasuna. (1 puntu)

Ondoren, orrialde bateko testu dramatiko bat idatzi, argudiaketan zehazturiko ideiak aintzat izanik. (1 puntu)

3. ATALA. Antzerki-artearen inguruko kontzeptuei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Hogei lerro nahikoak dira kontzeptu bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 1,5 puntu emango zaizkio bakoitzari.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA
LITERATURA DRAMATIKOA

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024
LITERATURA DRAMÁTICA

1. ATALA – Iruzkina eta analisia. Bietako bat aukeratu. (4 puntu)

- a) Samuel Beckett. *Godoten esperoan.*
- b) Samara Velte. *Eta Karmele?*

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu dramatiko labur bat sortzea eta argudiatzea. Bietako bat aukeratu. (3 puntu)

- a) Ander Lipus. *Antzerkiaren labirintoan II.*
- b) Formol, *Album.*

3. ATALA. Antzerki-artearen inguruko kontzeptu hauetatik BI aukeratu eta eduki nagusiak idatzizko testu batean garatu. (3 puntu)

- a) antzerki-pertsonaia.
- b) antzezpene-errealizazioa.
- c) antzerki-harrera.
- d) antzerki-testua (definizioa eta elementuak).

1. ATALA. Iruzkina eta azterketa. Bietako bat aukeratu.

a) *Godoten esperoan. Samuel Beckett. LEHEN EKITALDIA.*

(...)

*Landa-bide bat, zuhaitz batekin.
Arrastia.*

*Estragon, harri tontor baten gainean eserita, oinetakoa kentzen saiatzen da. Bi eskuekin ahalegintzen da, arnaska. Gelditu egiten da, akiturik; atsedean hartzen du, hasperenka; berriro ekiten dio. Atzera berriz kontu bera.
Vladimir sartzen da.*

ESTRAGON (*ostera ere etsiz*): Ez zagok zer eginik.

VLADIMIR (*pausotxo zurrunez hurbildurik, zangoak zabal-zabal eginik*): Ni ere uste horretara makurtzen ari nauk. (*Geldi-geldi geratzen da.*) Etsi-etsian eutsi zioat luzaroan, neure buruari esanez, Vladimir, zentzuduna izan hadi, ez duk oraindik den-dena ere saiatu. Eta borrokari ekiten nioan ostera. (*Bere baitara biltzen da, gogoan borrokan. Estragoni:*) Hemen haut, hortaz, berriro.

ESTRAGON: Hik uste al duk?

VLADIMIR: Pozik nagok hi ostera ikusteaz. Betiko joana hintzelakoan nengoan.

ESTRAGON: Ni ere bai.

VLADIMIR: Ospatu beharra zagok berriro elkartu izana. (*Hausnarrean hasten da.*) Nola, ordea? Altxa hadi, besarka hazadan. (*Eskua luzatzen dio Estragoni.*)

ESTRAGON (*erretasunez*): Poliki, hi, poliki.

Isilunea.

VLADIMIR (*mindurik, hozki*): Jakin ote daiteke non igaro duen berorrek gaua?

ESTRAGON: Hobi batean.

VLADIMIR (*txunditurik*): Hobi batean! Non hola?

ESTRAGON (*keinurik gabe*): Hor barrena.

VLADIMIR: Eta ez haute egurtu?

ESTRAGON: Bai... Ez gehiegi ere.

VLADIMIR: Lehengo berak al ziren?

ESTRAGON: Lehengoak? Ez zakiat.

Isilunea.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA
LITERATURA DRAMATIKOA

*EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD*

*EXTRAORDINARIA 2024
LITERATURA DRAMÁTICA*

VLADIMIR: Horretaz gogoeta eginik... urteak joanean... maiz bururatzen zaidak... zertan ote hintzatekeen... ni gabe... (Deliberamenduz.) Ez hintzateke hezur pilotxo bat besterik dagoeneko, ez zagok dudarik.

ESTRAGON (erretxindurik): Eta?

VLADIMIR (lur jota): Gehiegi duk hau gizon bakar batentzat. (Tartea. Bizi-bizi.) Beste alde batetik, ordea, zertarako etsi orain, horra zer esaten diodan neure buruari. Aspaldi handian pentsatu beharra zegoan hori, mendea hasterako, hortxe.

ESTRAGON: Aski. Lagun iezadak zaborreria hau kentzen.

VLADIMIR: Elkarri eskutik helduta botako genian geure burua Eiffel dorretik behera, estreinakoan artean. Itxurazkoak gintuan sasoi hartan. Orain beranduegi duk. Ez liguketek igotzen ere utziko. (Estragon oinetakoarekin ahalegintzen da berriro.) Zertan ari haiz?

ESTRAGON: Oinetakoa erantzten. Ez zaik hiri inoiz egokitu?

VLADIMIR: Aspertu nauk hiri esaten egunero kendu behar direla oinetakoak. Hobe huke adi bahengo.

ESTRAGON (ahulki): Lagun iezadak!

VLADIMIR: Min duk?

ESTRAGON: Min! Hara bestea, ea min dudan!

VLADIMIR (haserre-espantuz): Inork ez dik noski sufritzen inoiz, hik baino! Ni zertan naizen bost axola, ezta? Nahi nikek, haatik, nire lekuan bahengo. Esango hidake orduan.

ESTRAGON: Min izan duk?

VLADIMIR: Hara bestea, ea min izan dudan!

ESTRAGON (hatz erakusleaz seinalatuz): Hala eta guztiz ere, botoiak lotu behar hituzke.

VLADIMIR (burua paparrera makurtuz): Egia. (Botoiak lotzen ditu.) Zabarkeriarik ez, gauza txikietan.

ESTRAGON: Zer nahi duk esatea, beti azken unearen zain hago.

VLADIMIR (amesti): Azken unea... (Hausnar egiten du.) Itxarote luzea, zorion hobea. Nork zioen hori?

(...)

b) *Eta Karmele?*. Samara Velte.

(...)

EMAKUME 1: Hi lasai egon hadi, esan dinat-eta Karmele ahobero bat dela. (*Txantxetan*) Gogoratzen al haiz behin nola esan zuen tsunami batek Euskal Herriko kostara osoa hondatuko zuela? A ze ateraldia, e, Maritxu?

EMAKUME 2, (*lasaiago, irribarre ttiki batekin*): Bai, egia dun. Karmelek gauza asko esaten dizkin, eta nahiko arraroak, gainera.

(*Isilunea. EMAKUME 2 pentsakor dago. EMAKUME 1ek albotik begiratzen dio, zer pentsatzen ari ote den asmatu nahian, lehengo ikarak itzuliko ote zaizkion beldurrez.*)

EMAKUME 2: Bueno, baina azkenaldian gauza gutxiago esaten dizkin.

EMAKUME 1: Azkenaldian batere ez.

EMAKUME 2: Ezpaina handituta ekarri zuenetik, ia ezer ez.

(*Isilunea. Serio daude.*)

EMAKUME 1: Bueno, gauza bat bai: aurrekoan esan zinan oinak ibiltzeko eman zitzaizkigula.

EMAKUME 2: Goazen, orduan.

EMAKUME 1: Goazen ba!

(*Geldirik jarraituko dute, isilik. EMAKUME 1 ezpainak margotzen hasiko da, eta EMAKUME 2 euliren bati begira.*)

EMAKUME 1: Portzierto, nora joan dun?

EMAKUME 2: Nor?

EMAKUME 1: Karmele.

EMAKUME 2: Gure Karmele?

EMAKUME 1 (*ironiaz*): Ez, bosgarren pisuko Karmele.

EMAKUME 2 (*ironia harrapatu gabe*): A.

(*Isilunea.*)

EMAKUME 2: Ba al dakin gizonak eta emakumeak ez direla berdina suizidatzen?

EMAKUME 1: Zer?

EMAKUME 2: Inoiz entzun al dun emakume batek tiro egin diola bere buruari? Edo gizon batek bere zainak moztu dituela?

EMAKUME 1: Non entzun dun hori?



EMAKUME 2: Aldizkari batean.

EMAKUME 1: Aldizkari batean entzun dun?

EMAKUME 2: Zer nahi dun, telebistan irakurri dudala esatea?

EMAKUME 1: Ez, ez.

EMAKUME 2: Bueno ba.

EMAKUME 1 (*pentsakor*): Ba nik egingo nionan tiro neure buruari.

EMAKUME 2: Bai, Karmelek ere horixe esan zinan. Portzierto, etxera joan dun.

EMAKUME 1: Nor joan dun etxera?

EMAKUME 2: Karmele.

EMAKUME 1: Gure Karmele?

EMAKUME 2: Gure Karmele.

EMAKUME 1: Benetan?

EMAKUME 2: Benetan, zer?

EMAKUME 1: Etxera joan dela.

EMAKUME 2: Etxera joan dela nor?

EMAKUME 1: Karmele!

EMAKUME 2: Gure Karmele?

EMAKUME 1: Gure Karmele!

(Isilunea. EMAKUME 1ek hasperen egingo du, erdi-haserre, eta EMAKUME 2k harrituta begiratuko dio.)

EMAKUME 1: Etxera joan dun, orduan?

EMAKUME 2 (*pazientzia berreskuratu nahian*): Bai.

EMAKUME 1: Ziur?

EMAKUME 2: Ez, ziur ez.

EMAKUME 1: Orduan, zergatik esan didan?

EMAKUME 2 (*haserre*): Ez zakinat! Hik jakin nahi huen-eta!

EMAKUME 1 (*larritzen hasita, lagunak ulertzen ez duelako*): Baina, baina... Baina horrek ez zeukan zentzurik!

EMAKUME 2 (*harrituta*): Zerk ez zaukan zentzurik?

EMAKUME 1: Karmele etxera joan izanak.

EMAKUME 2: Baina zer dion? Zergatik ez zeukan zentzurik?

EMAKUME 1: Ba, Karmeleren etxea ja ez delako bere etxea. Horrexegatik.

EMAKUME 2: Egia dun, Karmele ja ez dun bere etxean bizi.

EMAKUME 1: Bizi ez, Karmele bere etxean hil egiten dun.

EMAKUME 2: Gauero hiltzen dun.

2. ATALA. Antzerki-praktikak jorratuz testu dramatiko labur bat sortzea eta argudiatzea. Bietako bat aukeratu. (3 puntu)

a) Ander Lipusen *Antzerkiaren labirintoan II* (2023, Susa) liburuko “Objektuak” atalean testu hau dago:

“Objektuen mundua oso interesgarria da. Are gehiago, objektuen antzerkia. Imajinarioaren lana, antzerkiak hartzen duen dimentsio magikoa eta aktoreak objektuak biziarazteko egiten duen esfortzu eta jolasak ez du parekorik. Mundu bat da objektua.

Eta objektuek gurekin bidaiatzen dute. Obra bakoitzean objektuen lista bat izaten dugu aktoreok. Behar diren momentuan, eszenan agertzen dira, eta objektuek ere hitz egiten dute, euren presentziarekin zerbait adierazten dute. Izan daiteke gerra garaiko gudari baten bota zahar bat, izan daiteke liburu bat, izan daiteke ezpata bat, kaiola bat edo erosketa-orga bat. Objektuek ere euren arima dute, euren bizia. Eta beti kontatzen digute zerbait Lur-globo honetan”.

Hori horrela, aukeratu objektu bat, eman esanahi edo erabilera berezi bat eta idatzi, lehenik, orrialde bateko argudio-testu bat eta, jarraian, beste orrialde bateko testu dramatiko labur bat.

b) Formol laborategiaren *Album* (2022, Susa) liburuan pasarte hau dago:

Puxikak

Amaiaren urtebetetzea da, ez da entseguan geratuko baina opari bat ekarri digu: puxika bana.

Puxikak gure arazoez puzteko eskatu digu. Haiekin jolastea ideia ona iruditu zaigu.

Intzak kontatu digu beti eduki behar zuela puxika bat etxean txikia zenean, harekin jolastu ahal izateko, flotarazteko. Nola ez, jolasean hasi da.

INTZA: Zer egin behar dugu orain gure arazoekin? Lehertu?

(...)

Hori horrela, lehenik eta behin, egoeraren kokalekua eta balizko pertsonaiak asmatu, orrialde bateko argudio-testu bat idatziz horretarako, eta, ondoren, sortu orrialde bateko testu bat emandako elkarrizketa horri jarraipena emateko.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

1.- Alderdi orokorrak

PJC/39/2024 Agindua, urtarrilaren 24koa, unibertsitatera sartzeko Batxilergoko ebaluazioaren ezaugarriak, diseinua eta edukia eta 2023-2024 ikasturtean lortutako kalifikazioak berrikusteko prozedurak egiteko eta ebazteko gehieneko datak zehazten dituena (2024ko urtarrilaren 26ko BOE).

Unibertsitate-ikasketak egin ahal izateko, proba bat gainditu beharko da, Batxilergoan lortutako kalifikazioekin batera, bertan eskuratutako ezagutzak eta heldutasun akademikoa baloratuko dituena, bai eta unibertsitate-ikasketak arrakastaz jarraitzeko gaitasuna ere.

Maiatzaren 30eko 76/2023 DEKRETUAK Batxilergorako EAEko berezko curriculuma ezartzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan gaur egun indarrean dagoen curriculuma da, estatuko oinarrizko curriculuma ezartzen duen araudian xedatutakoari kalterik egin gabe. Ondorioz, Literatura Dramatikoaren azterketaren erreferentzia 76/2023 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa da.
<https://www.euskadi.eus/desarrollo-curricular/web01-a3hakade/eu/>

Literatura Dramatikoa jakintzagaiak Batxilergoko ikasleen funtsezko konpetentzien garapena modu ukaezinean aberasten du, beren kontzientzia artistikoa eta sentsibilitatea zabaltzen baititu, antzerki-generoaren ezaugarri adierazkor, sinboliko, tekniko, estetiko eta soziologikoei lotuta. Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako literatura-hezkuntzarako jakintzagaien eta Batxilergoko Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Literatura Unibertsaleko jakintzagaietan jarraitutako ibilbidea osatzen du. Hortaz, antzeko printzipio metodologikoak ditu.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

2.- Ebaluatzeke irizpideak

1. kompetentzia espezifikoa

Irakurritako antzerki-obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, osatzen dituzten elementuen eta obraren zentzuaren arteko barne-erlazioak, eta testuaren eta haren testuinguru soziohistorikoaren eta literatura-tradizioaren arteko kanpo-erlazioak aztertzeetik abiatuz, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta obren hautemate estetikoari lotutako balio-irizkiak gaineratuz.

2. kompetentzia espezifikoa

Literatura dramatikoko obra garrantzitsuen irakurketan oinarrituta interpretazio pertsonala egitea, alderdi tematikoak, generokoak eta azpigenerokoak, egituraren eta estiloaren elementuak eta obren balio etikoaketa estetikoak kontuan hartuz, eta beste obra batzuekin eta beste esperientzia artistiko eta kultural batzuekin lotura argumentatuak ezarriz.

3. kompetentzia espezifikoa

Antzerki-testuak edo -zatiak elkarren artean edo beste arte-emanaldi batzuekin alderatzea, antzekotasun- eta kontraste-elementuak ahoz edo idatziz argudiatuz, bai gai- eta eduki-alderdiei dagokienez, bai alderdi formal eta adierazkorrei dagokienez, eta obren balio etiko eta estetikoari arreta jarritz.

4. kompetentzia espezifikoa

Antzerki-testu pertsonalak sortzea, asmo literarioarekin eta estilo-kontzientziarekin, generoaren testu idatziaren oinarritzko bi testu-sekuentziei (elkarrizketa eta oharpenak) eta esanahi-elementuen islari (espazioa eta objektu eszenikoak, pertsonaien diseinua edo interpretazio-kodeak) erreparatuz bereziki.

5. kompetentzia espezifikoa

Literatura-kanon dramatiko unibertsal inklusiboa lantzeko ikuspegi pertsonala ematea, iruzkin kritikoak edo antzerki-testuen (ahozkoak zein idatzizkoak) aipamenak eginez — genero-ikuspegia txertatuko da, mendebaldeko kanonari dagokion ikuspegi etnozentrikoa zalantzan jarriko da, baita gure gizartean nagusi den eta edozein gutxiengoren aurkako zapalkuntza dakarren beste edozein diskurtso ere—.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

3. Oinarriko jakintzak

A. Hainbat genero, garai, testuinguru kultural eta kode artistikotako obren eta zatien arteko testuarteko erlazioak—baita horien ekoizpen-testuinguruekin ere— ezartzen dituzten gaikako ibilbideetan inskribatutako literatura dramatikoko testu garrantzitsu batzuen interpretazioaren eraikuntza gidatua eta partekatua.

Antzerki-arteak: antzerki-testua (definizioa eta elementuak); antzerki-pertsonaia; antzezpen-errealizazioa; antzerki-harrera.

Literatura dramatikoko gaiak eta formak.

Antzerki-testuak aztertzeke, interpretatzeke eta sortzeke estrategiak.

B. Literatura dramatikoko lan garrantzitsuen harrera autonomoa eta literatura-elkarrizketetan eta trukeetan parte hartzea.

LITERATURA DRAMATIKOA

LITERATURA DRAMÁTICA

4.- Kalifikazio-irizpideak

Probaren A eta B aukerek atal berak dituzte. Probak antzerki-obra edo -pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta ikasleek, modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta hiru atal izango ditu.

1. atala. Obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu)

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
 - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
 - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
 - Pertsonaien ezaugarriak (0,5 puntu).
 - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
- b) Estiloaren eta formaren azterketa.
 - Antzerki-testuaren formaren berezitasunak (1 puntu).
 - Antzerki-testu idatziaren ezaugarri zehatzak (oharpenak eta dialogoak) (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-praktikak jorratuz testu-dramatiko bat sortzea eta argudiatzea (3 puntu).

Argudio- eta planifikazio-testu bat idatzi behar da lehenik, eta alderdi hauek landu behar ditu, orrialde bateko tartean:

- Testuaren ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak garatu. (1 puntu)
- Proposatutako ariketarekiko egokitasuna. (1 puntu)

Ondoren, orrialde bateko testu dramatiko bat idatzi, argudiaketan zehazturiko ideiak aintzat izanik. (1 puntu)

3. atala. Antzerki-artearen inguruko kontzeptuei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Hogei lerro nahikoak dira kontzeptu bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 1,5 puntu emango zaizkio bakoitzari.